

IRURAKO SAN MIGELAK 2025





Jai hauetan,
errespetuz
eraiki,
beldur barik
gozatu

BELDUR BARIK GUNEA

San Migel Plazan
Irailak 27, 20:00etatik-22:00etara

- **PUNTU MOREA:** Emakumeak elkarrekin etxera itzultzeko aukera Irailak 27 eta Urriak 4 - 00:30/03:00h (Irura Moretuz)
📍 San Migel plaza, udaletxearen aurrean

LARRIALDIAK/EMERGENCIAS 112

INFORMAZIOA/INFORMACIÓN 016 / 900 84 01 11

(365 egun, 24 ordu)

ZER EGIN ERASO MATXISTA BATEN AURREAN?

Emakume bat arriskuan dagoela uste baduzu, zure laguntza eskaini, **EZ UTZI BAKARRIK** egoera horretan.

Leku **LASAI** eta **SEGURU** batetara joateko aukera eman.

Konfidantzazko pertsona bati **DEITZEA** eskaini.

EZ BEHARTU gertatutakoa kontatzera eta har ditzakeen erabakien aurrean **EZ EPAITU**

Galdetu ea mediku arretarik nahi duen edo gertaera salatu nahi duen. Errespetatu beti bere erabakia, presiorik ezarri gabe.

ALKATEAREN AGURRA

Badator hegan herensugea, betiko gogo eta indarrarekin. Urtebete igaro da, Iruran azkene-koz egon zenetik; ordutik, hara eta hona ibilia izango da. Hodeien artean hegan dela, ikusiak izango ditu, munduan zehar gertatzen ari direnak, eta ohartuko zen, bere suak irurarron jai egunak goxatzeko balio duen moduan, beste batzuek sorturikoak, herrialde osoak suntsitzeko erabiltzen direla eta, guk bezala, kezka eta elkartasun posizio batetik, arbuiatzen dituela. Norabidea argi eta haizea alde duela, gurera iristear da, “Pirinioen oinetan kanta eta dantza egiten duen herrira, Euskal Herrira”.

Irailaren 26an, irurarrokin du hitzordua, sanmiel jaiei hasiera ematen laguntzeko. Orain arte, goitik behera begiratu izan gaitu eta jai egunak udaletxeko balkoian bizi izan ditu. Orain, aldiz, Kultur Mahaiko kideei esker, su baxuan prestatu diren musika, dantza, kirol eta hainbat ekitaldi ederren plater goxoak dastatzeko asmoz, gurekin batera, herriko kaleetan dantzan ibiliko omen da. Eta horrela, bertatik bertara, haur, gazte eta helduok jaiak giro alaian, berdintasunean eta errespetuan bizi nahi ditugula sentituko du, mingainean eus-kara daramagula, aniztasuna lagun dugula eta gurera datozenak pozik hartzen ditugula. Finean, herri bat garela! Horregatik, bihotzetik, aupa Irura eta gora sanmielak!!



Viene volando el dragón con el ánimo y la fuerza de siempre. Ha pasado un año desde la última vez que estuvo en Irura; desde entonces, habrá andado de aquí para allá. Volando entre las nubes habrá visto lo que está sucediendo por el mundo, y habrá observado que, del modo que su fuego sirve para ambientar los

días de fiesta de las y los irurarras, los fuegos creados por otras personas, se usan para destruir países enteros y, como nosotras y nosotros, desde una posición de preocupación y solidaridad, rechaza dicha violencia. Con la dirección clara y el viento a favor, está a punto de llegar a “un pueblo que canta y baila a los pies de los Pirineos, Euskal Herria”.

El 26 de septiembre tiene una cita con todas y todos las y los irurarras, ayudando así a dar inicio a las fiestas de San Miguel. Hasta ahora, nos ha mirado de arriba abajo y ha vivido los días de fiesta desde el balcón del Ayuntamiento. Ahora, en cambio, tiene la intención de acompañarnos bailando por nuestras calles, degustando así los

deliciosos platos de música, bailes, deportes y otros bellos eventos organizados a fuego lento gracias a las y los participantes de la Mesa de Cultura. Y así, de primera mano, sentirá que personas de distintas edades queremos vivir las fiestas en un ambiente alegre, en igualdad y respeto, que utilizamos el euskera, que la diversidad nos acompaña y que recibimos con alegría a todas las personas que se acercan a Irura. ¡Confirmando así, que formamos un pueblo! Por eso, de corazón, ¡Aupa Irura eta gora Sanmielak!

IRURAKO SAN MIGELAK



IRAILAREN 26A, OSTIRALA

18:30 Agurra, txupinazoa eta herensugearen jaitsiera. Jarraian kalejira buruhandiekin, Anoeta eta Irurako erraldoiekin eta Loatzo musika eskolako musikariekin.

19:00 VII. San Migel Xare irekia "Irurako Udala Sari Nagusia" torneoaren 1.go partida trinketea.

21:00 Barrikotea San Migel plazan.

Oharrak:

-Jan-ontziak eta mahai-tresnak norberak ekarri behar ditu, kuadrilla bakoitzeko hiru kidek agertu behar dute, mahaiak era egokian jartzeko hutsunerik utzi gabe, eta afalostean mahaiak bildu behar dira.

-Kafea egongo da plazan eskuragarri nahi duenarentzat baina norberak hartu behar du.

Ondoren, Olgetan taldearen emanaldia.

2025

IRAILAREN 28A, IGANDEA

11:00 Patata-tortilla lehiaketak helduentzat eta haurrentzat San Migel plazan. Suak etxetik ekarri behar dituzte partaideek eta ez daukanak aurretik udalean eskatu dezake.

Aurretik izena eman behar da irailaren 23a arte, horretarako egokitutako formularioaren bidez.

12:00 Sagardo dastatzea San Migel plazan.

18:00 Onintza abesbatzaren emanaldia elizako arkupetan.

19:00 Txapela Brava taldearen emanaldia.

20:00-22:00 Holi festa DBHko nerabeentzat gazteen karpan.

IRAILAREN 27A, LARUNBATA

09:00 Gazte-festaren hasiera San Migel plazatik.

11:00-13:00 eta **15:30-18:30** Haur-parkea ikastolako patioan.

13:00 Dantza-soka San Migel plazan.

14:00 Haurren bazkaria elizako arkupetan.

Oharra: beharrezkoa da udaleko kultura zerbitzuan izena ematea (WhatsApp: 688 827 206), irailaren 23a arte.

Bazkalostean jolasak haurrentzat adinaren arabeko taldeetan.

14:30 Gazteen bazkaria Gazte Alaiak Elkartean.

18:30 Poteo musikatua Burrumba elektro-txarangarekin.

20:00-22:00 Beldur barik gunea San Migel Plazan.

23:30 Janus Lester eta Iratzar taldeen emanaldia.

00:30/03:30 Puntu morea: Emakumeak elkarrekin etxera itzultzeko San Migel Plazan Udaletxearen aurrean. (Irura Moretuz)



IRURAKO SAN MIGELAK



IRAILAREN 29A, ASTELEHENA SAN MIGEL EGUNA

09:00 Diana txistulariekin.

11:00 Meza Nagusia. Ondoren dantzariaren agurra udal korporazioari eta hamaiketako herrikoia San Migel Plazan eta Gazte Alaiak Elkartean.

17:00 Herri kirol saioa San Migel plazan: Harria jasotzen Lierni Osa eta Odei Izeta. Aizkoran Jakes Izeta eta Jon Zaldua elkarrekin Jesus Mari Mujikaren aurka. Esataria Jose Angel Sarasola.

19:30 Bertso saioa elizan: Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio bertsolariekin eta Amaia Agirre gai-jartzailearekin.

URRIAREN 3A, OSTIRALA

MOZORRO EGUNA: GAIA: PELIKULAK ETA SERIEAK


11:00 Buruhandi txikiak eta apar festa.

18:00-20:00 Erraldioen topaketa eta Kalejira, Amasa-Billabona, Anoeta, Arguedas, Irura, Noain, Pasaia eta Utergako erraldoiekin trikitixa eta gaiteroek girotuta.

Ondoren txistor-jatea herri-eskolaren aurrean Irurako Ikastolaren eskutik.

22:30 Play Back jaialdia.

Ondoren zuzeneko musika emanaldiak txoznetan.



2025

URRIAREN 4A, LARUNBATA



11:30 Emakumezkoen xare partida eta ondoren VII. San Migel Xare irekia "Irurako Udala Sari Nagusia" torneoaren finala trinketean. 23 urtez azpiko Munduko Txapelketan parte hartu duten irurako jokalariei omenaldia.

13:00 Herri bazkarira doazenak mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte plazan.

14:00 Herri-bazkaria San Migel plazan: 14:00etan umeak, 14:30ean helduak.

Helduen menua: 28€, haurren menua: 15€, langabetu, ikasle eta jubilatuen menua 22€

Oharrak: bazkarirako txartelak salgai udaletxeko harreran eta ostatuan, irailaren 26a arte. Mahaietan tokia erreserbatzeko izena eman behar da dagokion formularioa betez urriaren 1a arte. Bazkalostean, bazkaltiarrek jaso beharko dituzte mahaiak eta aulkiak. Herri bazkariko tiketak txartelarekin eros behar dira.

Ondoren musika dantzagarria Dj Bull-ekin.

23:00 Herensugea erretzea.

Oharra: Kultur mahaiak animatu nahi ditu herritarrek herensugea erretzeko prozesioan parte hartzea, beltzez(lutoz) jantzita.

23:30 La Txama eta Auskalo taldeen emanaldia.

00:30/03:30 Puntu morea: Emakumeak elkarrekin etxera itzultzeko San Migel Plazan Udaletxearen aurrean. (Irura Moretuz)

URRIAREN 5A, IGANDEA

12:00 Meza Nagusia.

14:00 Bazkaria jublatu eta pentsiodunentzat. Izenematea aldeztu aurretik jubilatuen elkartearekin.

Ondoren, musika dantzagarria Joxe Mendizabalen eskutik.



«FESTAK GOZATZEKO DIRA, AHAL DELA, EGUNEKO 24 ORDUTAN»

JON GOTZON GURRUTXAGA UGALDE 'DJ BULL'

Herriko jaiei egin dien ekarpenagatik eta, bere lanaren bitartez, Irurako izena lau haizetara zabaltzeagatik, jai batzordeak erabaki du, aurten, DJ Bull-ek botatzea festen hasierako suziria

Hamaika urterekin etorri zen Herrialde Katalanetatik Irurara bizitzera Jon Gotzon Gurrutxaga Ugalde (Reus, 1974), nahiz eta lehenago ere ezagunak zituen sanmigelak, umetan etortzen baitzen familiarengana uda pasatzera.

Zein da Irurako festen inguruan duzun lehen oroitzapena?

Play back-a egiten hasi zirenekoa izango da lehenengo oroitzapenetako bat. Hasiera-hasieratik izan zuen arrakasta. Garai batean gogoan dut mozorrotzeko joera handiagoa zuela jendeak.

Festaren inguruan aritzen zara profesionalki. Zenbatean eragin du Irurak horretan?

Izango du zerikusia, bai. Nik ulertzen dudana festa eredu hori Iruran ezagutu dut, parte hartzailea eta auzolanean antolatutakoa. Ez Iruran bakarrik, baina Iruran ere bai.

Lan asko egitea egokitu zaizu festetan?

Bai. Beste modu batera gozatzen dituzu zure herriko jaiak, eskatzen dizu ahalegina, baina gero betetzen zaitu jendeak zuk antolatutako horrekin gozatzen duela ikusteak. Beste abantaila bat ere badu: zuk prestatutako jaiak ez dituzula hain erraz kritikatzeko (barrez).

Urtetan sona handiko musika taldeak ekarri dituzue Irurara. Zergatik apustu hori?

Gazte talde bat elkartu ginen eta festetan gure egun bat behar genuela pentsatu genuen. Jai horren bueltan, betiko erromeriez harago, gazte jendearentzat kontzertuak antolatu behar genituela okurritu zitzaigun. Puri-purian zeuden taldeak ekartzen genituen eta horrek suposatzen zuen gastuari aurre egiteko, gazteok jartzen genuen txosnatik lortzen genuen dirua. Ahalegina eskatzen zigun, baina zerbait nahi duenak aurretik lanketa egin beharra dauka.

Talderen bat gogoan duzu bereziki?

Herrialde Katalanetatik etorritakoak, adibidez: La Pegatina –pare bat aldiz etorri zena–, Bongo Botrako eta horrelakoak.

Beste festekin alderatuta zertan dira ezberdinak Irurakoak?

Festa guztiek dute bere berezitasuna. Adibidez, beste jai batzuekin alderatuta malgutasuna izaten da ordutegietan. Nik beti diot festak gozatzeko direla, ahal dela, eguneko 24 ordutan. Iruraren kasuan, bi asteburu dira, urtean lau egun; ez zait hainbestekoa iruditzen, molestia jasangarria da. Deskantsatzeko baditugu urteko gainerako egunak.

Askok aldatu al dira Irurako festak?

Aldatu dira noski. Beti saiatu gara gauza diferenteak egiten. Funtzionatzen duena mantendu eta gauza berriak ere probatu ditugu. Hori da eboluzionatzeko modu bakarra. Aldatu ezean zaila da irautea.

Espero zenuen jai batzordearen erabakia?

Nik pertsona normaltzat dut nire burua. Hala ere, gustura hartu dut jai batzordearen erabakia. Pozten naiz DJ bezala egiten dudana lana baloratu dutelako.

Zerbait esango duzu udaletxeko bakoitik?

Bai, zerbait esango dut, baina ez dut oraindik ezer prestatu. Ez dut inprobisatuko, behin aukera hori ematen didatela nire herrikideei zerbait esateko aprobetxatuko dut.

Aurtengo festak modu berezian ospatuko dituzu?

Orain ez naiz Iruran bizi eta ez naiz lehen bezainbeste egoten jaietan. Lehen egunero, gau eta egun egoten nintzen. Orain lana ere egin behar izaten dut data horietan. Txupinazoa botatzen dudana egunean, gauean, musika jartzera joan behar dut beste herri batera.

Dena den, bigarren larunbatean Iruran izango naiz. Lana egingo dut eta parranda ere bai.




VOLKSWAGEN - AUDI ADITUAK
www.xpmotor.eus
xpmotor@xpmotor.eus
Katategi bailara Pab 1, T. 687 886 437, IRURA (Gipuzkoa)

MUSIKA FAKTORIA

Musika zerbitzu integrala.
Zure bidelagun, sortzetik plazaraino

DENDA ESTUDIOA
ENTSEGU LOKALAK ZUZENEKOETAKO
ARGI ETA SOINUA

Ibaiondo, 6
20270 Irura (Gipuzkoa)

denda@musikafaktoria.eus 603828610

IRURA FIESTAS DE SAN MIGUEL

Viernes 26 de septiembre

18:30 Saludo, chupinazo y bajada del dragón. A continuación, pasacalles con cabezudos, gigantes de Anoeta e Irura y la charanga de la escuela de música Loatzto.

19:00 Primer partido del Torneo de Xare VII Gran Premio Ayto. de Irura en el trinquete.

21:00 Barricote en Plaza San Miguel.

Avisos: cada persona participante deberá traer sus cubiertos, platos, vasos y servilletas. Tres personas de cada cuadrilla, deberán presentarse en la plaza para colocar las mesas de forma adecuada y sin dejar huecos, y después de la cena se deberán recoger las mesas.

Habrà café en la plaza, las personas que lo deseen deberán servirse por sí mismas.

A continuación, bailables a cargo del grupo Olgetan.

Sábado 27 de septiembre

09:00 Inicio de la Gazte festa desde la Plaza de San Miguel.

11:00-13:00 y **15:30-18:30** Parque infantil en el patio de la ikastola.

13:00 Dantza-soka en la plaza San Miguel.

14:00 Comida infantil en los soportales de la iglesia.

NOTA: es necesario inscribirse por WhatsApp en el número 688827206 hasta el 23 de septiembre.

Después de comer, juegos infantiles organizados por grupos de edad.

14:30 Comida de jóvenes en la Sociedad Gazte Alaiak.

18:30 Poteo amenizado con Burrunba electro-charanga.

20:00-22:00 Espacio Beldur barik en Plaza San Miguel.

23:30 Concierto de los grupos Janus Lester e Iratzar.

00:30/3:00 Punto morado en frente del Ayuntamiento para el regreso a casa, dirigido a mujeres, organizado por Irura Moretuz.

Domingo 28 de septiembre

11:00 Concurso de tortilla de patata para niñas y niños y para personas adultas en la plaza San Miguel. Los y las participantes deben traer los hornillos de casa y quien no lo tenga puede solicitarlo previamente en el Ayuntamiento. Inscribirse con antelación antes del 23 de septiembre mediante el formulario adecuado para ello.

12:00 Degustación de sidra en la plaza San Miguel.

18:00 Actuación del coro Onintza.

19:00 Actuación del grupo Txapela Brava.

20:00/22:00 Fiesta Holi para adolescentes de ESO en la carpa de jóvenes.

Lunes, 29 de septiembre (Día de San Miguel)

09:00 Diana con txistularis.

11:00 Misa Mayor. A continuación, baile del agurra a la corporación del Ayuntamiento y almuerzo en la Plaza de San Miguel y en la sociedad Gazte Alaiak.

17:00 Deporte rural en la Plaza San Miguel: con la piedra Lierni Osa y Odei Izeta. Con el hacha Jakes Izeta y Jon Zaldúa juntos contra Jesús Mari Mujika. Locutor Jose Angel Sarasola.

19:30 Sesión de bertsos en la iglesia con las y los bertsolaris Aitor Mendiluze, Alaia Martín, Jesus Mari Irazu y Maialen Lujanbio. Presenta y dirige Amaia Agirre.

3 de octubre, viernes

Día de disfraces. Tema: películas y series.

11:00 Cabezudos pequeños y fiesta de la espuma.

18:00 a 20:00 Encuentro de gigantes y Kalejira con los gigantes de Amasa-Billabona, Anoeta, Arguedas, Irura, Noain, Pasaia y Uterga y amenizado por gaiteras y gaiteros y trikitilaris. A continuación, degustación de txistorra frente a la herri eskola de la mano de la Ikastola de Irura.

22:30 Play Back.

A continuación, actuaciones musicales en directo en las txoznas y bares.

Sábado 4 de octubre

11:30 11:30 Partido de Xare femenino. Bienvenida a los irurarras participantes en el Mundial Sub 23 de Pelota en Argentina y final del Torneo de Xare VII Gran Premio Ayto. de Irura en el trinquete.

13:00 Las personas asistentes a la comida popular pondrán las mesas y las sillas en la plaza.

14:00 Comida popular en la Plaza San Miguel: 14:00 comensales infantiles, 14:30 personas adultas.

Nota: Venta de tickets para la comida en la recepción del Ayto y en el Ostatu hasta el 26 de septiembre. Los tickets de la comida popular deben adquirirse con tarjeta

Nota: Para reservar plaza en las mesas hay que inscribirse rellenando el formulario correspondiente antes del 1 de octubre.

A continuación, músicaailable con Dj Bull.

23:00 Quema del dragón.

Nota: la mesa cultural anima a las vecinas y vecinos a participar en la procesión para quemar el dragón vestidas y de negro (luto).

23:30 Actuación con los grupos La Txama y Auskalo.

00:30-03:30 00:30/3:00: Punto morado en frente del Ayuntamiento para el regreso a casa, dirigido a mujeres, organizado por Irura Moretuz.

Domingo 5 de octubre

12:00 Misa Mayor.

14:00 Comida para personas jubiladas y pensionistas.

Inscripción previa para la comida en el hogar de los jubilados y las jubiladas.

A continuación, Músicaailable de la mano de Joxe Mendizabal.

AURREKONTUA

Gastuak

Irailak 26

Txupinazoa	200€
Kalejira buruhandiekin	1.500€
Barrikotea	550€
Olgetan Erromeria taldea	2.057 €

Irailak 27

Gazte festa	570€
Haur parkea	1.815€
Haurren bazkaria	1050€
Elektrotxaranga	3.025€
Kontzertua (Janus Lester + Iratzar)	9.160€

Irailak 28

Patata tortila lehiaketak	618€
Sagardo dastaketa	2.620€
Onintza Abesbatza	300€
Txapela Brava	3.025€

Irailak 29

Diana txistulariekin	540€
Dantza emanaldia	100€
Hamaiketakoa	3.720€
Herri Kirolak	1.300€
Bertso saioa	2.400€

Urriak 3

Erraldioen topaketa	2.300€
Play back jaialdia	200€
Holi festa	430€

Urriak 4

Herri bazkaria	7.400€
Xare txapelketa	3.500€
DJ Bull:	800€
Kontzertua (La Txama + Auskalo)	7.161€

Urriak 5

Jubilatuena bazkaria + J.Mendizabal + loreak	2.635€
--	--------

Bestelako gastuak

Jaietako zapiak	380€
Programaren diseinua eta inprimaketa	1.963€
Komunak	2.160€
Suziriak	552,80€
Soinu eta argi ekipoak	6.691€
Oholtzaren Karpa	2.378,86€
Herri bazkariko karpak	329€
Muntaketa eta materialak	1.373€
Beste batzuk	1.000€

Guztira gastuak

75.803,66€

Sarrerak

Taberna, lantokien ekarpena	6.000€
Beste batzuk	2.800€
Herri bazkariko txartelak	7.000€

Guztira sarrerak

15.800€



kutxabank